

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Akats-zuzenketa, 2025eko apirilaren 25eko ALHAOn (46. zenbakia) argitaratutako 11198/2025 iragarkian, zein "Autonomoentzako txeketa, 2025" laguntzen deialdi publikoari eta oinarriei buruzkoa baita

Akats bat aurkitu da 2025eko apirilaren 25eko (asteazkena) ALHAOn (46. zenbakia) argitaratutako 2025-01198 iragarkian, zein «Autonomoentzako txeketa, 2025» izeneko laguntzen deialdi publikoari eta oinarriei buruzkoa baita. Horrenbestez, –«Autonomoentzako txeketa, 2025» izeneko laguntzen deialdiko oinarriak ofizioz zuzentzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko uztailaren 4an egindako bilkuran; zehazki atal eta baldintza hauek:

6 oinarrian: Onuradun izateko betekizunak:

Honela dioen lekuan:

"Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:...

b. LAABen alta lehenengo aldiz 2024ko otsailaren 1a baino geroago eman izana.

Honela behar du:

"Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:...

b. LAABen alta lehenengo aldiz 2023ko abenduaren 13a baino geroago eman izana.

10 oinarrian: Nahitaezko agiriak:

Honela dioen lekuan:

"10.1. ...

Txostenetan jasota egon behar da lehen alta 2024ko otsailaren 1a baino geroagokoa dela eta eskabidea aurkezten den egunean gutxieneko 12 hilabeteko etenik gabeko alta dagoela."

Honela behar du:

"10.1. ...

Txostenetan jasota egon behar da lehen alta 2023ko abenduaren 13a baino geroagokoa dela eta eskabidea aurkezten den egunean gutxieneko 12 hilabeteko etenik gabeko alta dagoela."

Herritar oro jakinaren gainean egon daitezen ematen da argitara.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 7an

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ